

ARGARATA - SANTA KRUTZ ERMITA

Herria ezagutu: *Etxalarko inguruetako ibilbidea, herriko gauza ederrenak erakusten duena; ondarea naturala eta artistiko kulturala. Luz.: 4.350km / Des.: 50m Den.: 1^{1/2}ordu.*

- 0,000 km: Herriko plaza/Turismo bulegoa. Zugarramurdirako bide asfaltatua abiatu.
- 0,300 km: Bidegurutzea. Zugarramurdirako errepidea jarraitu.
- 0,930 km: Tximista erreka gaineko zubia zeharkatu eta ezkerretara jo, harresien arteko galtzadatik (harrizko bidea); Etxalar aldera.
- 1,170 km: Bidegurutzea. Zuzen segi, belardien artean, eta 100 m aurrerago **ARGARATA** erreka gaineko harrizko zubia zeharkatu eta herrian sartu.
- 1,410 km: Bidegurutzea. Zuzen jarraitu karrika nagusitik, arkitektura herriko apaindua erakusten duten etxeen artean; eskuin aldetik, "gurutze-bideko" gurutzeak eta 200 m aurrerago, ezkerrean, herriko latsarriak eta errotako presa.
- 1,720 km: Sarako eta Usategietako errepidea; Etxalarko norabidea jarraitu 50m. Tximista erreka gurutzatu aurretik eskuineko bide zabala hartu herrian sartu gabe. 100 metro aurrerago kisu labe bat. (Bertze aukera: Zubia gurutzatu eta plazara joan eta hemendik herri sarrerako aparkalekura)
- 2,080 km: Larraburua zahar etxea eta Iruneko eta Iruñako errepidea. Ezkerrean hartu Tximista erreka gurutzatu arte eta ondotik eskuinera hartu (Aparkalekua). Auzo barrura doan errepidea jarraitu Tximista erreka paraleloan, asfaltoa bukatu arte.
- 2,480 km: Landa tarteko bidea jarraitu Santa Krutz ermitara ailegatu arte.
- 3,110 km: **SANTA KRUTZ ERMITA**, Tximista erreka gaineko ondoan. Ermita eskuinetik inguratu eta bide zabala igoko dugu, "gurutze-bidea" eta gaztainondo gazteen artean.
- 3,635 km: Larrapil-Sarriku auzoko bide asfaltatua. Bertatik jaitsi, ezkerretik.
- 4,025 km: Etxalarko kanposantua, ehun metro lehenago Fatimako Ama Birjinaren ermita pasatu eta gero. Herri-gunean sartu eta 120m. geroxeago eskuinera jo Iñarretako gurutze aldera. Jaitsi herriko plazara joateko, Kultur etxea eta Eliza tartetik pasatuz.
- 4,350 km: Etxalar, herriko plaza, ibilbidearen hasiera eta bukaera.